

Zer da TREBA nerabeak?

12-16 urte bitarteko Gipuzkoako nerabeei beren ahalduntze-prozesuan lagunduko dien prestakuntza-eskaintza da. Eta haien bizi-kalitatea eta aukerak hobetzea du xede.

Programa hau baliatuz, nerabeei beren heziketa-prozesuan lagunduko dieten hainbat gairi buruzko ikastaro laburrak antolatu ahal izango dira Gipuzkoako udalerrietan: ongizate emozionala, begirada kritikoa, sexualitatea eta bizitzarako trebetasunak.

Horien helburua da neska-mutil gazteen artean gaitasun emozionalak garatu eta osasun mentala sustatzea; Interneten eta sare sozialen erabilaren ikuspegi kritikoa eta arduratsua bultzatzea; sexualitateari buruzko hezkuntza integrala eskaintzea; eta helduarorako tresna praktikoak ematea.

Nola funtzionatzen du?

Lau ikastaro-multzo antolatu dira aipatutako lau gaien inguruan: ongizate emozionala, begirada kritikoa, sexualitatea eta bizitzarako trebetasunak. Horietako bakoitzak oinarrizko ikastaro bat izango du, gaiari buruzko ikuspegi orokorra jorratuko duena, eta gaien sakontzeko beste bi.

ONGIZATE EMOZIONALA

1

- Osasun mentala, hezkuntza emozionala, autoezagutza, autoestimua, adimen emozionala.

BEGIRADA KRITIKOA

2

- Sare sozialen erabilera arduratsua, pentsamendu kritikoa, gehiegizko informazioa, fakenews.

SEXUALITEA

3

- Ugalketa-osasuna, harreman osasungarriak, sexu-heziketa integrala.

BIZITZARAKO TREBETASUNAK

4

- Denboraren kudeaketa, helburuen plangintza, gaitasun bigunak, zeharkako gaitasunak.

Zuen udalerrian ikastaroak antolatzeko, honako pauso hauek eman beharko dituzue:

- Udalak landu nahi duen gaia zein den jakinararaziko dio Gazteria Zuzendaritzari **formulario honen bidez**. Eskatera udal-teknikariak egin beharko du, eta horretarako epea **otsailaren 13a** izango da.
- Ondoren, **otsailaren 14tik 27ra**, TREBAnerabeak **programaren arduraduna udal-teknikariarekin harremanetan jarriko da** ikastaroak nola antolatuko diren azaltzeko. Behin eskaerak Gazteria Zuzendaritza **ikastaroak lurralde osoan modu orekatuan zabaltzen ahaleginduko da**, eskualde guztietan ikastaroak egiteko aukera egon dadin.
- Otsailaren 24tik 27ra** eskualde guztietan **bilerak** egingo dira **ikastaroen agenda zehazteko**.

Ikastaroen formatua


- Aurrez aurrekoak izango dira (2 orduko saioak).
- Euskaraz edo gaztelaniaz egiteko aukera egongo da.
- Doakoak izango dira.
- Udalen ardura izango da ikastaroa egin ahal izateko gutxieneko 10 pertsonako taldea osatzea.

Ongizate emozionala



OINARRIZKO IKASTAROA

● Leire Urrea eta Carol Palacio



KUADRILEN SALTSAK

● Beñat Benitez



KONTZIENTZIA ETA GORPUTZA

● Leire Urrea eta Carol Palacio

Begirada kritikoa




OINARRIZKO IKASTAROA

● Intered



FAKE NEWS

● Bitargi



SCAPE BOX: NERABEEN AKTIBISMOA BULTZATZEN

● Intered

Sexualitatea



OINARRIZKO IKASTAROA

● Ageda Blasco



GORPUTZA ETA HARREMANAK

● Ageda Blasco



ANIZTASUNA ETA AFEKTUAK

● Ageda Blasco

Bizitzarako trebetasunak



OINARRIZKO IKASTAROA

● Powering Education



BOKAZIOA ETA ETORKIZUNERAKO ERABAKIAK-HARTZEA

● Powering Education



IKIGAI: BIZITZAREN ZENTZUA

● Julen Arrieta

Eskaera egin webguneko formularioa betez!

